

## Gure gerra

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-01-22: 2.

Ez naiz karlistenaz ari, ezta Francok ezarritakoaz ere; bigarren gerra mundialaz eta Iraken piztu duten hirugarren mundu gerraz ere ez; nolabait gizakien arteko gerra guztiek ukitzen bagaituzte ere.

Edonon gizakiak armatzen dituenak gizateria osoa kutsatzen bait dute.

Odol bero bera da eta ixurtzen dena.

Baina orain betiko euskaldunen arteko borrokaz ari naiz; moeta askotako ikusi ezinak, barkatu ezinak eta gorrotoak asmatu ezinean gabiltza herri hau sakabanatzeko.

Orain dugu elkartzen hasteko aukera egokia.

Nazionalismo espainola sentitzen duten PSOEko euskaldun batzuk ezin dute gehiengoak duen euskal abertzaletasuna ulertu; hobeto esan sentitu, libre dira nonahiko sentitzen baino, eta Eusko Jaurlearitzan beste lau urterako gehiengo duen EAJ eta EEK jarri dituzten gutxienezkoak ez dituzte onartu, eta hau dela eta, harremanetan hurrengo dena EA da.

Banatu zirenen artean dago orain aukera; diferentziak alde batera utzi eta oinarrizko aberri lanetan elkar hartuta jokatzeko eskatzen du ordenaketa internazional berri bat sortzen ari den Europak, beraz herri bezala jokatzeko une larria da.

A!, helburu jakin batzuetarako bederen zentzuz elkartzen hasiko bagina!